

INFORMAZIO OHARRA: BEZ-AREN HOBARIAREN ETA TRATAMENDUAREN FAKTURETAKO DOKUMENTAZIOA.

2022ko apirilaren 15etik aurrera, erregaiak eta karburanteak txikizka hornitzeko instalazioek edo hobari hau aplikatzen zaien hornikuntzengatik azken kontsumitzaileei zuzenean saltzen dieten enpresek jaulkitzen dituzten agirietan gutxienez honako informazio hauetako bat jaso beharko dute:

- Eragiketaren zenbatekoa, bereizita zein den prezioa deskontua aplikatu aurretik eta prezioa hobaria aplikatu ondoren, baita aplikatutako hobariaren zenbatekoa ere.
- Berariaz aipatzea Errege Lege Dekretuan jasotako hobaria aplikatu dela.

AZKEN KONTSUMITZAILEARI ZUZENEAN SALTZEKO ESTABLEZIMENDUTIK LITROKO 0,20 EUROKO DESKONTUA EGIN BEHAR DENERAKO ADIBIDEA:

Gasolindegri batean litro bat gasolinaren hornidura egiteko, litro bakoitzeko 1,8 euroko salmenta prezioan (BEZa barne) (prezio horrek EZ du handizkariaren litroko 0,05 euroko deskontua hartzen barruan) hornidura dela-eta eman beharreko dokumentuan honako aipamen hauek sartzea gomendatzen da:

1. aukera: Jartzea zein den prezioa deskontua aplikatu aurretik, prezioa hobaria aplikatu ondoren eta aplikatutako hobariaren zenbatekoa.

PSP	1,80
HOBARIA	0,20
ORDAINDU BEHARREKOA	1,60
HOBARIA, GUZTIRA	0,20

Eragiketa honetako BEZa hau da:

Zerga oinarria (1,80/1,21)	1,49
BEZa (1,49 x 0,21)	0,31

2. aukera: Berariaz aipatzea 6/2022 Errege Lege Dekretuan jasotako hobaria aplikatu dela.

Berariazko erreferentzia hori librea da. Adibide gisa, aipamenak honela egin daitezke:

- Fakturan, informazio gehigarri gisa: "0,20 euroko hobaria lortu du litroko, Estatuak hobariak emanda 2022ko martxoaren 6/2022 Errege Lege Dekretuaren arabera".
- Aipamen gisa, publikoarentzako salmenta prezioaren kontzeptuaren barruan:

PSP - 6/2022 ELD-ren HOBARIA BARNE	1,60
------------------------------------	------

Betebehar hori bera aplikatuko zaie enpresei, adibidez, automobiletako ordezeko piezen denda bati, gasolina zerbitzugune bat ez bada ere, azken kontsumitzaileei Adblue gehigarria hornitzen badie, produktu hori sartuta baitago litroko 0,20 zentimoko hobariaren esparruan.

Salmenta fakturan, zerga oinarria adierazi behar da, gehi BEZaren kuota, eta prezioa aplikatutako hobariaren zenbatekoarekin.

Gehigarria salduz gero, adibidez, euro bat + % 21 BEZa = 1,21 euro (hobaria baino lehen publikoari saltzeko prezioa), fakturan jaso behar da, halaber, kobratzen den azken prezioa eta 1,01 euro, jasota fakturaren lekuren batean 0,20 zentimoko hobaria.